



INIGO AZKONA

Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXANEKO KIDEA ♦

AHTren kontrako berba

ERRI DE LUCA. Italiako idazle eta poeta tribunaletara eramanez. Bere aurka LTF enpresa frantsesak (Lyon-Turin Ferroviaria) salaketa jarri du egindako adierazpen hauengatik: “AHT saboteatuko da... Horretarako balio dute zizailek, hain zuzen: erabilgarriak dira oso, hesiak ebakitzeko. Terrorismorik bat ere ez. Oso beharrezkoak dira AHT obra kaltegarri eta alferrikakoa dela ulertarazteko” (*Huffington Post*). AHTren obrak aurrera doaz Italiako Val di Susa, chunka polizia eta militarren zaindaritzapean. Gobernuarekiko solasaldiak eta bitartekaritza guztiak bukatu direnean ez da beste biderik geratzen, bere ustez.

SABOTAJEA. Salaketan Marco Rettighieri enpresako zuzendariak dio idazlea iraganen “legaltasunaren mugetan” zeuden mugimenduetan (Lotta Continua) ibili zela eta politika demokratikoaren hiztegian sabotajeak ez duela sartzetik, tresna eragile legitimoztat. Leporatuak iritzi delituak urte batetik bosterako zigorra dakar. Bere buruaren defentsan, De Luca dio sabotajeak ez duela esanahi bat eta bakarra, ministerio publikoak exijitzen duen moduan. Eta liburuxka bat idatzi du: *La parola contraria* (Feltrinelli; gaztelaniaz Seix Barralek argitaratu du), non luma maisuaren legez bere hitzak, gogoak eta ekintzak, oraingoak eta

lehengokoak, eta sabotajearen esanahiak modu ederean plazaratzen dituen.

HITZA ETA DELITUA. “Kontrako berbaren eskubidea erabiltzearen prozesatuko naute. Nire iritzia delitua bada, ez diot betetzeari utziko”. Horixe da bere argudio nagusia. Elkartasun uholde bat sortu da

Italia osoan (iostoconerri.net) eta mundu osoan hedatzen ari da. Eta elkartasunarekin batera AHTren kontrako arrazoiak. Amiantorena, besteak beste. Polizia sindikatuek ere salatu dute obren segurtasuna bermatzen duten funtzionario armatuak amianto kutsakor eta minbizidunaren arriskupean daudela. Izan ere, agintariei urarekin hautsa kentzea otu zaie. “Agian amiantoa uretan disolbagarria dela konbentziturik”, dio De Lucak.

BERANDU AL DA? AHTren auziak belaunaldi batek baino gehiago ezagutu ditu, Val di Susa eta Euskal

Herrian. Han eta hemen obrak hasita daude baina oposizio ahotsak ez dira isildu eta ez du ematen erresponearekin amatatuko direnik. Agintari eta komunikabide nagusiek proiektu atzerazinak eta ezinbestekoak direla baieztatzen dituzten bitartean Donostia-Bilbo bidaia 55 minutukoa izango dela publikoki esan dute duela gutxi. Noiz epaituko dira politikarien gezurrak? ■

Polizia sindikatuek ere salatu dute obren segurtasuna bermatzen duten funtzionario armatuak amianto kutsakor eta minbizidunaren arriskupean daudela

JOSU SANTESTEBAN



Edu Zelaieta

♦
IDAZLEA

Datuak eta pertsonak mintzo

DATUA MINTZO: European baino %40 gutxiago inbertitzen du unibertsitatean Jaurlaritzak. Zenbakia Jaurlaritzak berak emana da, 2011-2014ko unibertsitate planaren gaineko ebaluazioan.

Datua mintzo berriz: Barne Produktu Gordinaren %0,84ko diru-inbertsioa egiten ari da egun Lakua. Alabaina, 2008an, %0,97 bideratzen zen unibertsitateetara; hau da, Deustuko Unibertsitate, Mondragon Unibertsitate eta, bereziki, publiko den Euskal Herriko Unibertsitate.

Aurrera begirako egitasmoa mintzo: Cristina Uriarte sailburuak adierazi du,

plan berriaren aurkezpenean, hobe dela helburu handiegirik ez finkatzea: 2018rako %1 inbertitzeko asmoa agertu du Jaurlaritzak. Helburuak betetzera –ikuski egin behar–, 0,03ko aldea litzateke hamar urtearen buruan.

EHuko irakasle ugari mintzo: Bolognak ekarritako aldaketak, berrikuntza horrek irakasleekiko zituen egokitzapen eskakizun handiak tarteko, unibertsitate publikoaren diru-iturri nagusia urritzen ari zela egin (nahi izan) dira. “Lan gehiago eskatu digute baliabide gutxiagorekin”.

Datuak eta pertsonak mintzo. ■